

KONTROL MOZIOA

Morlanseko Amara Berri eskolako patioari buruzkoa

Izar Hernando Ibero EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2024ko martxoaren 11n Pertsonen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Morlans auzoaren sarreran jada hasiak diren lanek Amara Berriko eskolako patioa hartuko dute datozen hilabeteetan. Lan horiek, aurreikusita dauden moduan, ikasturtea amaitu osteko udako oporraldian zehar garatuko dira, eta ikasle-irakasleen oporraldia amaitzearekin batera amaitu. Ordea, gaiak kezka sortzen du heziguneko gurasoen artean. Edozein obratan atzerapenak ematea ohiko samarra izaten bada, Morlansekoaren dimentsioa izango duten lanetan atzerapenaren mamua sortzea ulertzekoa da. Jakinik lan horien atzerapenak eskolaren bizitzan, eta beraz, hainbeste familiarengan izango lukeen inpaktua, Udalak obra hauen betetze maila garaiz eta ongi emango dela bermatu behar duela uste dugu.

Bestetik, eskola horretan, hiriko beste batzuetan bezala, aterpe faltaren arazoa dago. Patioa handia izaki, estalpea duen zatia oso txikia da, egun euritsuetan haurrak patiorik gabe utziz. Hori horrela, gurasoen aldetik ondorengo eskaria iritsi zaigu: patioa gotik behera zeharkatuko duten lanak martxan jarriko direla kontutan hartuta, zergatik ez obra horiek baliatu segidan patioa estaltzeko? Patioa alderik alde gurutzatuko dute lanek, eta beraz, berreraikitzea osoa izan beharko da; beraz, obraren azken fasean patioaren estalpea egiteak eskolak duen ahulgunea nabarmen hobetuko luke.

Hori horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA:**

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

- Udaltzarak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari lan horiek modu egokian eta epeen barruan garatu daitezzen egin beharreko kontrol-mekanismoak martxan jar ditzala.
- Udaltzarak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari lan horien azken fasean patioa estaltzeko aukera azter dezala, Morlanseko Amara Berri eskolako komunitatearekin batera.

Donostian, 2024ko martxoaren 15ean

Izar Hernando Ibero
EH BILDU udal taldeko zinegotzia